

TESTULIBURUEN DOAKOTASUN PROGRAMA IXTEKO JARRAIBIDEAK,
2014-2015 IKASTURTERAKO

INFORMAZIO OROKORRA

LOMCEren ezarpenak eta Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburu finantzaziorako martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen aplikazioak duten tenporalizazio desberdinak ekarri duen eragina txikiagotzeko asmoz, azken urteetan Departamentuak hainbat neurri hartu ditu, kasu:

- Ikastetxeei aholkatzea, erregelamenduan esaten den gisan, testuliburuak mantentzearen aukera balora dezaten.
- Sorten berritze partziala eskaintzea, ikastetxeak berri ahal izan ditzan LOMCEren ondorioz irakasgaietan izandako aldaketen arabera.
- 5 urte baino gehiago dituzten eta kaltetuta dauden liburuak berritzeko gehienezko ehuneko gisa %25a ezartzea.
- Nork bere materiala egiteko araudiak ahalbidetzen duen aukeraren baitan, finantzazioa ezartzea, %5era arte, LOMCEra egokitzeko berri ez diren liburuak.

2015-2016 ikasturterako, ikastetxe bakoitzeko egoera aipaturiko neurrien arabera harturiko erabakien ondoriozkoa izanen da, hots, askotarikoa, eta beraz, komenigarria da LOMCEren ezarpena bukatzen ez den bitartean neurri horiek bere horretan mantentzea, horrela, ikastetxeak, bere egoeraren arabera, hautatzeko aukera handiagoak izan ditzan.

A.- IKASMAILAK: LEHEN HEZKUNTZAKO 1.a eta 2.a

Aurreko ikasturteetan bezala, ikasmila hauetako testuliburuak ez dira 2015-2016 ikasturterako gorde behar. Beraz, ikastetxeak haiekin zer egin erabaki ahal izanen du, ondokoen artean:

- Ikasleari uztea.
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...).
- Testuliburuak mankomunitateen bidez birziklatzea (lehenik eta behin, liburuari kendu beharko zaizkio forrua eta ikaslearen identifikazio datuak dituen orria).

B.- LEHEN HEZKUNTZAKO GAINERAKO IKASMAILAK

B.1. LEHEN HEZKUNTZAKO 3.a eta 4.a

1. 2014-2015 edo 2013-2014 ikasturteetan liburuak BERRITZEA hautatu bada, hondatu direlako baino ezin izanen dira berritu eta, beraz, D atalean (ORDEZTEA) ezarritakoaren arabera jokatuko da.
 - a. 2013-2014an berritu zutenek, %0,5era arte.
 - b. 2014-2015ean berritu zutenek, %0,5era arte.
 - c. 2014-2015ean berritze partziala egin zutenek, %0,5era arte berritu zen zatian.

2. 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan testuliburuak ORDEZTEA hautatu bazen:

- Ikastetxeak berriz ere erabaki ahal izanen du:
- 1. -Liburu berriak hautatzea:
 - a. Liburu sorta guztia berrituz
 - b. Partzialki berrituz liburu sorta
 - Ikastetxeek testuliburuak modu mailakatuan berritu ahal izanen dituzte bi urtean eta ez urte bakarrean. Horrela, ikastetxe batek ikasturte honetan berritze partzial bat egin dezake egoki ikusten duen irakasgaietan eta, 2016-2017 ikasturtean, gainerako testuliburuak berritu. Aurten berritzen den sortaren ehunekoa ordainduko da eta heldu den urtean gainerakoa. Gainera, ordezteagatik %8ra arte eskatu ahal izanen da, aurten aldatzen ez diren liburuen kasuan.
- 2.- Badaudenak ordezteak:

D atalean (ORDEZTEA) ezarritako jarraibideei kasu egingen zaie.

Ordeztea erabakitzen bada, gehienezko ordezte ehunekoa %25ekoa izanen da, aurreko urteetan bezala.

Testuliburuak nork bere materialarekin LOMCEra egokitu ahal izateko, kontzeptu honengatik %5 gehitzea onartuko da, ordezteak erabakitzen bada. 2014-15ean ordaindu ziren egokitzapenak ez dira berriz ere ordainduko.

Ezinezkoa bada testuliburu berak mantentzea, ikastetxeak haiekin zer egin erabaki ahal izanen du, ondokoan artean:

- Ikasleari uztea.
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...).
- Testuliburuak birziklatzea, dagokion mankomunitatearen bitartez.

Posta elektronikoa bidaliko da gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, maila hauetarako zein aukera hautatu den adieraziz (berrerabiltzea edo liburu berriak aukeratzea), **2015eko maiatzaren 30a baino lehen.**

B.2. LEHEN HEZKUNTZAKO 5.a eta 6.a

2014-2015 ikasturtean ikastetxe batzuek testuliburuak berritzea hautatu zuten eta beste batzuek, berriz, testuliburuak ordeztea.

a. 2014-2015 ikasturtean liburuak BERRITZEA hautatu bada, hondatu direlako baino ezin izanen dira berritu eta, beraz, D atalean (ORDEZTEA) ezarritakoaren arabera jokatu da.

1. 2014-2015ean sorta guztia berritu zutenek, %0,5era arte.
2. 2014-2015ean berritze partziala egin zutenek, %0,5era arte berritu zen zatian.

b. 2014-2015 ikasturtean testuliburuak ORDEZTEA hautatu bazen:

- Ikastetxeak berriz ere hautatu ahal izanen du:

- 1. -Liburu berriak hautatzea:

a. Liburu sorta guztia berrituz

b. Partzialki berrituz liburu sorta

- Ikastetxeek testuliburuak modu mailakatuan berritu ahal izanen dituzte bi urtean eta ez urte bakarrean. Horrela, ikastetxe batek ikasturte honetan berritze partzial bat egin dezake egoki ikusten duen irakasgaietan eta, 2016-2017 ikasturtean, gainerako testuliburuak berritu. Aurten berritzen den sortaren ehunekoa ordainduko da eta heldu den urtean gainerakoa. Gainera, ordezkatzegatik %8ra arte eskatu ahal izanen da, aurten aldatzen ez diren liburuen kasuan.

- 2.- Badaudenak ordeztea:

D atalean (ORDEZTEA) ezarritako jarraibideei kasu egingen zaie.

Ordeztea erabakitzen bada, gehienezko ordezte ehunekoa %25ekoa izanen da, aurreko urteetan bezala.

Testuliburuak nork bere materialarekin LOMCera egokitu ahal izateko, kontzeptu honengatik %5 gehitzea onartuko da, ordeztea erabakitzen bada. 2014-15ean ordaindu ziren egokitzapenak ez dira berriz ere ordainduko.

Ezinezkoa bada testuliburu berak mantentzea, ikastetxeak haiekin zer egin erabaki ahal izanen du, ondokoen artean:

- Ikasleari uztea.
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...).
- Testuliburuak birziklatzea, dagokion mankomunitatearen bitartez.

Posta elektronikoa bidaliko da gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, maila hauetarako zein aukera hautatu den adieraziz (berrerabiltzea edo liburu berriak aukeratzea), **2015eko maiatzaren 30a baino lehen.**

C.- BIGARREN HEZKUNTZA

1.- INFORMAZIO OROKORRA

2015-2016 ikasturtean, LOMCE ezarriko da DBHko 1. eta 3.ean.
2016-2017 ikasturtean DBHko 2. eta 4.ean ezarriko da.

Beharrezkoa da gogoraraztea, doakotasun programaren arabera, testuliburuak ezin daitezkeela bost urtean aldatu. Horrek esan nahi du denbora tarte horretan ezin izanen dela testuliburuak berritzea eskatu doakotasun programaren kargura.

Ordeztea erabakitzen bada, gehieneko ordezte ehunekoa hautaturiko ikasmilen eta aukeren arabera izanen da, aurrerago azaltzen den gisan.

Testuliburuak nork bere materialarekin LOMCEra egokitu ahal izateko, kontzeptu honengatik %5 gehitzea onartuko da DBHko 1. eta 3.erako, ordezte erabakitzen bada. 2014-15ean ordaindu ziren egokitzapenak ez dira berriz ere ordainduko.

C.1. DBHko 4.a

a) 2014-2015 edo 2013-2014 ikasturteetan liburuak BERRITZEA hautatu bada, hondatu direlako baino ezin izanen dira berritu eta, beraz, D atalean (ORDEZTEA) ezarritakoaren arabera jokatu da.

- a. 2013-2014an berritu zutenek, %0,5era arte.
- b. 2014-2015ean berritu zutenek, %0,5era arte.
- c. 2014-2015ean berritze partziala egin zutenek, %0,5era arte berritu zen zatian.

b) 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan testuliburuak ORDEZTEA hautatu bazen:

- Ikastetxeak berriz ere hautatu ahal izanen du:
- 1. -Liburu berriak hautatzea:
 - a. Liburu sorta guztia berrituz
 - b. Partzialki berrituz liburu sorta
 - Ikastetxeek testuliburuak modu mailakatuan berritu ahal izanen dituzte bi urtean eta ez urte bakarrean. Horrela, ikastetxe batek ikasturte honetan berritze partzial bat egin dezake egoki ikusten duen irakasgaietan eta, 2016-2017 ikasturtean, gainerako



testuliburuak berritu. Aurten berritzen den sortaren ehunekoa ordainduko da eta heldu den urtean gainerakoa. Gainera, ordezteagatik %8ra arte eskatu ahal izanen da, aurten aldatzen ez diren liburuen kasuan.

- 2.- Badaudenak ordeztea:

D atalean (ORDEZTEA) ezarritako jarraibideei kasu egingen zaie.

Ordeztea erabakitzen bada, gehienezko ordezte ehunekoa %25ekoa izanen da, aurreko urteetan bezala.

Ezinezkoa bada testuliburu berak mantentzea, ikastetxeak haiekin zer egin erabaki ahal izanen du, ondokoen artean:

- Ikasleari uztea.
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...).
- Testuliburuak birziklatzea, dagokion mankomunitatearen bitartez.

Posta elektronikoa bidaliko da gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, maila hauetarako zein aukera hautatu den adieraziz (berrerabiltzea edo liburu berriak aukeratzea), **2015eko maiatzaren 30a baino lehen.**

C.2. DBHko 1.a

2014-2015 ikasturtean ikastetxe batzuek liburuen berritzea hautatu zuten eta beste batzuek ordeztea.

a. 2014-2015 ikasturtean liburuak BERRITZEA hautatu bada, hondatu direlako baino ezin izanen dira berritu eta, beraz, D atalean (ORDEZTEA) ezarritakoaren arabera jokatu da.

1. 2014-2015ean sorta guztia berritu zutenek, %0,5era arte.
2. 2014-2015ean berritze partziala egin zutenek, %0,5era arte berritu zen zatian.

b. 2014-2015 ikasturtean testuliburuak ORDEZTEA hautatu bazen:

- Ikastetxeak berriz ere hautatu ahal izanen du:

- 1. -Liburu berriak hautatzea:

a. Liburu sorta guztia berrituz

b. Partzialki berrituz liburu sorta

- Ikastetxeek testuliburuak modu mailakatuan berritu ahal izanen dituzte bi urtean eta ez urte bakarrean. Horrela, ikastetxe batek ikasturte honetan berritze partzial bat egin dezake egoki ikusten duen irakasgaietan eta, 2016-2017 ikasturtean, gainerako testuliburuak berritu. Aurten berritzen den sortaren ehunekoa

ordainduko da eta heldu den urtean gainerakoa. Gainera, ordezteagatik %8ra arte eskatu ahal izanen da, aurten aldatzen ez diren liburuen kasuan.

- 2.- Badaudenak ordeztea:

D atalean (ORDEZTEA) ezarritako jarraibideei kasu egingen zaie.

Ordeztea erabakitzen bada, gehienezko ordezte ehunekoa %25ekoa izanen da, aurreko urteetan bezala.

Testuliburuak nork bere materialarekin LOMCEra egokitu ahal izateko, kontzeptu honengatik %5 gehitzea onartuko da, ordeztea erabakitzen bada.

Ezinezkoa bada testuliburu berak mantentzea, ikastetxeak haiekin zer egin erabaki ahal izanen du, ondokoen artean:

- Ikasleari uztea.
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...).
- Testuliburuak birziklatzea, dagokion mankomunitatearen bitartez:

Posta elektronikoa bidaliko da gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, maila hauetarako zein aukera hautatu den adieraziz (berrerabiltzea edo liburu berriak aukeratzea), **2015eko maiatzaren 30a baino lehen.**

C.3.- DBHko 2.a eta 3.a

2014-2015 ikasturtean bukatuko da Doakotasun Programan ezarritako 5 urteko aldia.

- Ikastetxeak hautatu ahal izanen du:

- 1. -Liburu berriak hautatzea:

a. Liburu sorta guztia berrituz

b. Partzialki berrituz liburu sorta

- Ikastetxeek testuliburuak modu mailakatuan berritu ahal izanen dituzte bi urtean eta ez urte bakarrean. Horrela, ikastetxe batek ikasturte honetan berritze partzial bat egin dezake egoki ikusten duen irakasgaietan eta, 2016-2017 ikasturtean, gainerako testuliburuak berritu. Aurten berritzen den sortaren ehunekoa ordainduko da eta heldu den urtean gainerakoa. Gainera, ordezteagatik %8ra arte eskatu ahal izanen da, aurten aldatzen ez diren liburuen kasuan.

- 2.- Badaudenak ordeztea:
- Ordeztea erabakitzen bada, gehienezko ordezte ehunekoa %25ekoa izanen da, aurreko urteetan bezala.
 - Testuliburuak nork bere materialarekin LOMCEra egokitu ahal izateko, kontzeptu honengatik %5 gehitzea onartuko da, ordeztea erabakitzen bada.
 - 2016-2017 ikasturtean LOMCE DBHko 2.ean ezarriko da eta, horren ondorioz, indartu egiten da testuliburuak mantentzeko ditzaketan testuliburu berak mantentzeko proposamena.

Ordeztea hautatzen bada, D atalean (ORDEZTEA) ezarritako jarraibideekin bat jokatu da.

Ezinezkoa bada testuliburu berak mantentzea, ikastetxeak haiekin zer egin erabaki ahal izanen du, ondokoen artean:

- Ikasleari uztea.
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...).
- Testuliburuak birziklatzea, dagokion mankomunitatearen bitartez.

Posta elektronikoa bidaliko da gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, maila hautetarako zein aukera hautatu den adieraziz (berrerabiltzea edo liburu berriak aukeratzea), 2015eko maiatzaren 30a baino lehen.

D. ORDEZTEA

D.1.- TESTULIBURUAK ITZULTZEA:

- Itzultzea: Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburu finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen garapenerako araudia onetsi zuen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 7.1 artikulua honela dio: “testuliburuak doan jasotzeko programaren hartzailea den ikasleak behar bezala eta kontuz erabili eta zaindu beharko ditu liburuok; horrez gain, ikasturtea amaitzen denean edo ikaslea beste ikastetxeren batera joaten delako baja ematen zaionean, testuliburuak ongi zainduta eta erabilia itzultzeko betebeharra izanen du...”.

- Gordetzea: araudiaren 5.3 artikuluekin bat: “funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek haietan matrikulatutako ikasleek erabilitako testuliburuak ongi erabil daitezzen zainduko dute, bai eta iraun dezaten ere, testuliburuak erabiltzen dituzten aldietan”.



- Egunak: ikastetxeek zehaztuko dute zein egunetan itzuli behar diren liburuak, beraien beharren arabera. Betiere, berrikuste eta ordezte lanak betetzea ahalbidetuko da. Geroago azalduko dugu hau guztia.

Irailerako gaintitu gabeko irakasgaiak dituzten DBHko ikasleek liburuak beraien esku izanen dituzte azterketak egin arte. Kasu hauetan, liburuak berrikusi ondoren ikusten bada hondatuak daudela, ikastetxeak zuzenean tratatuko ditu ordezte beharrean daudenen multzoan. Ikasleek ikasmaita errepikatzen badute, ondoko ikasturtean testuliburu sorta bera emanen zaie.

D.2.- TESTULIBURUAK BERRIKUSTEA:

- Eskumena eta epeak: araudiaren 13.2 artikulua arabera “ikastetxeko eskola kontseiluak aukeratzeko duen batzordeak (Oinarrizko Irakaskuntzarako Testuliburu Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legean aipatutakoa) ezarritako prozedura betez, berrikusiko ditu testuliburu guztiak.”

- Liburuen egoera: ikastetxe publikoek zein itunduek EDUCAn idatziko dute zein den liburuen kontserbazio egoera, aipatuz, itzuli ez diren liburuak diren edo hondatuta dauden.

- Ondorioak: materiala ez itzultzeak edo hondaturiko materiala ez ordezkatzek ikasleari eragotziko dio ondoko ikasturtean Doakotasun Programan sartzea, materiala itzultzen edo ordezten ez duen bitartean.

D.3.- IKASLEEN ORDEZKARIEK MATERIALAK ORDEZTEA:

- Ordeztu beharra: araudiaren 7.2 artikulua ondokoa ezartzen du “testuliburu hondatzen bada edo galtzen bada, ikasleen legezko ordezkariak hondatu edo galdutako material horren ordez berria erosi beharko dute, erregelamendu honetan ezarritakoa betez” (61/2010 Foru Dekretua).

“Ikaslearen legezko ordezkariak ez badute betetzen materiala berritzeko betebeharra, ikasleak utzi egingen dio testuliburuak doan jasotzeko programako hartzaile izateari, harik eta galdutako edo hondatutako materiala berri dela frogatzen den arte”.

- Jakinarazpena eta eguna: araudiaren 13.3 artikulua ondokoa xedatzen du: “testuliburuak berrikusi ostean, liburuak gaizki erabili dituzten ikasleen legezko ordezkarietara jakinaraziko die galdutako edo hondatutako liburuen ordezkariak erosi beharko dituztela; berritze hori egiteko epea adieraziko die. Jakinarazpena jaso den egunetik hamar egun baliadun izanen dituzte, gutxienez, horretarako”.

- Jakinarazpen dokumentua: ikastetxe publikoetarako zein itunduetarako, EDUCA aplikazioak dokumentua sortuko du ikasleen ordezkarietara jakinarazteko materialak ordezkarietara beharra dutela.

- Ordezpenaren kontrola: ikastetxe publikoek zein itunduek ordezenaren berri emanen dute EDUCA aplikazioan.

Ikaslea ikastetxez aldatzen bada 2015-2016 ikasturtean, jatorrizko ikastetxeak ikaslearen legezko ordezkarietara “Materiala itzuli izanaren egiaztatzea” emanen die. Bertan azalduko da, hala bada, materiala itzuli edo ordeztu dela. Dokumentua EDUCAn izanen dute eskuragarri ikastetxe publikoek zein itunduek.

E.- IKASMAILA GUZTIAK

JASOTAKO KOPURUEN BEHIN BETIKO JUSTIFIKAZIOA:

- Eskumena, epea eta dokumentazioa: Testuliburuaren Doakotasun Programako sarreraren eta gastuen behin betiko justifikazioa eskola kontseiluaren bidez onetsiko da; horretarako, eskola kontseiluak onetsiko du ikastetxeak testuliburuak erosteko dituen kontuen egoera, ateratzen den saldoa adieraziz.

Ikastetxe publikoek EKAINAREN 15a BAINO LEHEN ikastetxeko eskola kontseiluaren ziurtagiria posta elektronikoz igorri beharko dute Hezkuntza Departamentura (gratuidad.libros.texto@navarra.es). “Kontuak onetsi izanaren ziurtagiria” dokumentuaren ereduak EDUCAn egonen da eskuragarri.

Ikastetxe itunduek EKAINAREN 15a BAINO LEHEN ikastetxeko eskola kontseiluaren ziurtagiria (“Kontuak onetsi izanaren ziurtagiria” dokumentuaren ereduak erabiliz) posta elektronikoz igorri beharko dute Hezkuntza Departamentura



(gratuidad.libros.texto@navarra.es), eta webgunean eskuragarri izanen diren sarreraren eta gastuen formularioak bete beharko dituzte.

- Kontabilitate dokumentazioa zaintzea: egindako gastuaren jatorrizko frogagiriak eta gainerako dokumentu ekonomikoak (hauek ere jatorrizkoak) ikastetxeak gordeko ditu, baina Hezkuntza Departamentuak nahi izanez gero eskuratu ahal izanen ditu.

- Erabili gabeko kopuruak itzultzea:

Ikastetxe itunduetan, ikastetxeko eskola kontseiluak onetsitako kontabilitatearen arabera zenbatekorik baldin badago Doakotasun Programan aplikatu ez dena eta erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosteko ere erabili ez dena, diru kopuru hori itzultzeko eskatuko die Hezkuntza Departamentuak.

Ikastetxe publikoetan, eskola kontseiluak doakotasun programarako onetsiriko kontabilitateko saldoa positiboa baldin bada, 250/1992 Foru Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da (250/1992 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrera eta gastuen erregimena arautzen duena).